

noaua

Zubikasi, etengabe prestatzen

Sorturen herri kontseilua
aurkeztuko da ostiralean

Merkatu Txikia, noaua.com
web orrian ere erabilgarri



**Independentziari
buruzko jardunaldiak
antolatu ditu Nafartarrak taldeak**

*
BOKATA
MENUA
8,50€


IRATXO
Taberna

DASTA EZAZU ASTEBURUKO
GURE **PLATER BEREZIA,**
7€tan bakarrikan!!!

(ASTEBURURO EZBERDINA)

* Menua entsalada, bokata, edaria eta postreaz osatua dago.

Tel.943 374 330 • Bordaberri 5 • Usurbil
www.iratxodeusurbil@facebook.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?

DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN

ASEGURURIK EZ DUZUE?

AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK

Tel: 943.36.21.63

**BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHOZKETA
ENPRESENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN**

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil

Bi arreba

Chopin eta Xenpelar

Pianojolea: Xabier Lizaso
Bertsolaria: Andoni Egaña

**BERTSO MUSIKATUA
APIRILAK 28, IGANDEA
SUTEGIN, 19:00**

noava



Sarrera: 10€ (Usurbilgo Txiriboga tabernan, Noava!ko egoitzan eta egunean bertan) Noava!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noava!ko egoitzan aldez aurretik.

Albiste iruditan

Zumartekoak, Haur Koruen tailerrea

Hondarrbian antolatu den Haur Koruen VII. Tailerrea parte hartuko du Zumartek. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren ekimenez antolatu da asteburu honetan egingo den tailerra. Zumartetik aditzera eman digutenez, Abesbatzako 15 partaidek hartuko dute parte.

“Koru-errepertorio erakargarria, indarrez betea eta oso dibertigarria prestatzeko aukera izango dute bertan”, adierazi digute prentsa-ohar bidez, Zumarteko kideek. Antza denez, Gipuzkoan federatuta dauden abesbatza guztiei eskaini zaie aukera. Baina izenburuak dioten bezala, haurrei zuzenduriko musika korala izango da asteburu honetan landuko dutena.

Zumartekoak nahiz izena eman duten gainontzeko abesbatzako kideak bi zuzendari hauen esanetara arituko dira. Te-



Asteburu honetan, Zumarte Abesbatzako 15 lagun Hondarrbian izango dira tailer batean.

resa Apestequia eta Aitor Biain. Eta hauekin batera, Jasone Alba ere izango da ikastaroa zuzentzen.

Ikusi nahi duten guztientzat irekia izango den kontzertu batekin amaituko da asteburua.

Laburrean

Sexualitate tailerra gaztetxean

Apirilaren 27an, 10:00-14:30 artean burutuko da. Gazteei zuzendutako tailerra da, Itayak eta Sexu Aholkularitza Guneak antolatu dutena. Izen emateko epea apirilaren 23ra arte irekia, sexuholku@usurbil.net helbidean.

Salbatore elizako organoa ezagutzeko aukera

Salbatore Parrokiako organoa ezagutzeko bisita antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak. Apirilaren 20rako jarri dute hitzordua, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Kanpandorrera igotzeko aukera egongo da.

Langabezia tasak behera egin zuen martxoan

Bigarren hilabetez jarraian langabezia tasak ez du gorantz nabarmen egin. Otsailean 382tik 371ra jaitsi zen. Martxoan langabetu bat gehiago, guztira 372 zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noa.ua.com /// www.noa.ua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noa.ua.com.

Diseinu berria: Erroitx S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noa.ua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Herri Harresia, apurtezina

Leerrok idazten ari naizen unean zabaltzen ari dira azken orduko albisteak. Astearte goiza da, 2013ko apirilak 16 ditu gaur. Eta beste behin, ordu zailak aurretik, Eleak Mugimendua twitter bidez ohartarazi berri duenez: "Adi ailegatu da espetxerako agindua. Zatoz Bulerak gazteak defendatzera!!!!". Mezu hau irakurrita, hasi da beste behin, oraindik ere atzetan utzi ez dugun zoritxarreko "atzera kontua". Kasu honetan, Donostialdeko zortzi gazterentzat. Sartu naiz Twitterreko AskeGunearen helbidean eta hotzikara eragiten duten mezuak irakur daitezke.

Egun batzuk lehenago, Bulebarreko AskeGunean atxilotu zuten Ekaitz Iberorena, eskaera bat eginez: "mila esker babesa eman didazuen guztioi! Sekulakoa izan da jasotako beroa eta elkartasuna! Orain, ez utzi besteak eramatzen!".

Gazteen egoera bidegabea salatzaren mezu gogorak. Hala nola, edozein unetan atxilotuak izan daitezkeen lagun hauen izen abizenak, adina, jaioterria edota zertan egiten duten lan, berri ematen duten mezuak. Eta ondoan, zenbat urtetarako espetxeratu nahi dituzten adierazten da. Guztia ongi gogor-

razten dutenez "ideia politikoengatik". Haserrea nabari da kalean eta sare sozialetan. "Utzi gazteria bakean! Ez dizuegu utziko, ez duzue lortuko! Ez duzue gazteria isilaraziko!".

Streaming bidez Bulebarrean gertatzen ari dena jarraitzeko aukera eskaintzen hasiak dira. Oraintxe iragarri dutenez, atxilotuak izan daitezkeen gazteen ondoan egongo dira herritarrak, gau eta egun, Bulebarrean, 24 orduz. Eta atxilotze arriskurik balego, sirena entzun eta Herri Harresia eraikiko da. Eskaera batsarean: "Ertzaintza etortzen bada, elkarri gogor lotu eta modu baketsuan

tinko eutsi! Eta edozer gerta ere, beti beti beti norbait egon dadila argazkiak ateratzen eta bideoak grabatzen".

Ikusteke une honetan, datozen orduotan zer gerta daitezkeen. AskeGunea jendez bete da jada. Lehen argazkiak zintzilikatu dituzte. Jendetza Donostiako Bulebarrean. Ez daude bakarrik. Gertuko, herritarren babesa eta berotasuna dute. Esperantzara garamatzen mezua Twitterren; "Herri Harresia, gogorra, ezerk ezin dezake apurru, maitasunez eta elkartasunez eraikia baita go".

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Ika-Mika

Independentzia hizpide

Azken aldian gure ahotan (eta beste batzuen ere) bolobolo dabilen hitza da independentziarena. Garaia ote den ala ez, gure gaitzen konponbide izango ote den, katalanek eta eskoziarrek lortuko duten... Eta gai hau sakonki tratatzeko, Usurbilgo Nafartarrak taldeak "Independentziarako ibilbide orria" hitzaldi zikloa ospatuko du apirilaren zehar. Hiru hitzaldi izango dira guztira, eta independentziarako bidean sortuko diren zalantza eta arazok mahai gainean jarri eta eztabaida eta hausnarketa sustatzea izango dute helburu.

Zientzia Politikotik EHUko irakasle den Mario Zubiagak emango dio hasiera zikloari. Estatu propioa lortzeko helburua duten bi prozesu

nazionalen – euskalduna eta katalana – arteko simetria eta asimetriak izango ditu hizpide. Espainiar Estatuaren krisi sakon batean murgilduta dagoen honetan, eta Europako prozesu independentisten (Eskoziak) eredu jarraituz, Kataluniako mugimendu independentistak azken urteotako gorakada nabariena ezagutu du, gizarte zibilaren eskutik. Zubiaga gauza hauetaz arituko da apirilaren 24an Sutegein, arratsaldeko 19:00etan.

Apirilaren 25ean egingo den mahai-inguruak gai korapilatsu bezain interesgarria planteatuko du: posible al da independentzia Nafarroarik gabe? Hegoaldeko euskal "probintzien" abiadura sozial ezberdinen ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoak independentzia lortzeko

erraztasun edo aukera gehiago dituenaren ustea zabaldu da zenbait jenderen artean. Baina, posible da euskal independentziaren bidean aurrera egitea Nafarroa Garaia atzetan gertatzen bada? Edo ikuspegi sakon edo estrategikorik gabeko irudipena al da, Espainiak gure indarrak banatzeko sortua? Zer da Nafarroa, traba deseroso bat, ala Estatu arazoa? Gai hauei buruz arituko dira Nabarraldeko Angel Rekalde eta Luis M^a Mtz Garate eta Pako Aristi idazlea Sutegein, arratsaldeko 19:00etan.

Eta ekimen honi amaiera emateko, apirilaren 26an, ostirala, "Iparraldeko ELB sindikatuak 30 urte" hitzaldia egingo dute ELBko idazkari nagusi den Panpi Sainte Mariek eta Dominik Agergaraik laborariak arratsalde-

ko 19:00etan Sutegein. Euskal Herriko Laborarien Batasuna (ELB) sindikatua Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biziberritzeko ahaleginean sortu diren taldeetan garrantzitsuenak da eta ikastolen sorreran, eskola publikoetan euskara sartzeko ahaleginean, enpresa berri askoren sorreran, ekonomia mailako sare alternatiboak sortzen, kultur mugimenduen sustapenean eta abar luze batean buru belarri aritu da 30 urtez.

Ondoren afora egingo da gaztetxean 21:30etan hizlariekin. Kantu saioarekin giroa gero eta afora eta ondoren "Odolaren Mintzoa" herriko taldearen kontzertua izango da. Afora txartela 15€tan dago salgai.

Nafartarrak Taldea

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: apirilak 26. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 22.

Egitarau zabala begibistan, Sagardo Egunaren bueltan



Maiatzaren 19an izango da Sagardo Eguna. Aurretik izango dira hainbat ekitaldi.

Ez ahaztu honako data hau; maiatzaren 19a. Eguna horretan ospatuko da XXXII. Sagardo Eguna. Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideak antolakuntza lanetan murgilduak daude jada. Baina ez eurak bakarrik, baita beste zenbait eragile ere. 2013ko edizio honen bueltan sagardogintzari loturiko beste hainbat ekitaldi ere antolatu baitira, hilabete honen amaieran hasi eta ekaina heldu artean. Deialdi guztiok, "1. Sagastia Loretan" izeneko egitarauan bildu dituzte.

Datorren astekarian zehaztasun gehiagoren berri emango dizuegun arren, aurreratu dezakegu jada, egitarau zabal honi hasiera emango dion lehen hitzordua, apirilaren 27an burutuko dela. Sagasti loretuetan barrena ibilaldia antolatu dute, Jakoba Errekondo paisajistarekin. Txangoa, goizeko 9:30ean abiatuko da, Alkartasuna Kooperatibatik.

Maiatzerako, Sagardo Egunarekin batera, beste bisita gidatu bat ere iragarria dago, kasu honetan, Aginagako Sari baserrira. Hilabete berean, egina dagoen "Usurbilgo sagastien inventarioa eta sagar ekoizpena" izeneko iker-

keta aurkeztuko da. Udalerrri honetako sagarkien dastaketa ikastaroa ere burutzekoa da. Sagastien udako inausketa ikastaroa programatu dute baita, ekitaldi guztiok antolatzen dabilzan eragileok: Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarteak; Alkartasuna; NOAUA! Kultur Elkarteak; Usurbilgo Sagastia E.M.; Itaya Gazte Asanblada; Aitzaga Elkarteak; Sagardoa eta Sagarra Unibertsitatea; eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak.

Sagardo dastatze gidatua, larunbat honetan Saizarren

Sagardoaren Lurraldeak deituta, larunbat honetan 11:00etan Saizar Sagardotegian. Bertaratu asmo duenak, aldeztu aurretik izena eman behar du, 943 550 575 telefono zenbakira deituta edo info@sagardoarenlurraldea.com helbidera email bat idatzita. 10 euroren truke, kata gidatua parte hartu eta pintxoak dastatu ahal izango dira. Fernando Vadillo enologoak zuzenduko du eta ekitaldia. "Proposamena sagardo bakoitzaren berezitasunak bereizten ikasi nahi dituen sagardozaletan zuzendua dago", berri eman dute antolatzaileek.

Krisiaren inguruko mozioa erregistratu du Auzolan Elkarteak

"Krisiaren aurrean zer egin?" izeneko jardunaldiak antolatu zituen Auzolan Elkarteak, joan den urtarrilaren 17 eta 18an. Hitzorduan baita, herritar eta eragileen artean, krisi egoera honi aurre egiteko proposamena aurkeztu zen. Proposamen hau orain, mozio moduan Usurbilgo Udalean erregistratu du Auzolan Elkarteak, datorren osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu izan dadin. Aurretik ezohiko deialdirik ez bada, hurrengo osoko ohiko bilkura apirilaren 30ean burutuko da, 18:00etatik aurrera Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan.

Ikuspegi estrategiko bateratua

Auzolan Elkartetik egin duten planteamenduaren jatorrian, honako hipotesi edo kezka planteatzen dute: "ekonomiaren kolapso batera iristeko arriskua ikusten dugu, hipotesi gisa. Horrek, Usurbilen bizigaren pertsona guztiongan ondorioak izango lituzke". Egoera honen aurrean, "gerta litekeen hipotesi horri kolektiboki aurre egiteko prozesu bat irekitzea" eskatzen dute. "Egungo Krisi Orokorren baitan, Usurbilgo herriarentzat Ikuspegi Estrategiko Bateratu bat eratzeko gogoeta kolektiboaren prozesua garatzea", Auzolan Elkartekoen txostenak jasotzen duenez.

Nola aurre egin?

Euren proposamena, zirriborroa dela ohartarazten dute, "Udalaren eta herriko talde-eragileen arteko eztabaidari bide eman nahi diona". Ildo horretatik, aipatu testuak zergatik eta zertarako galderei erantzuten diela berri ematen du Auzolan Elkarteak, "eta zer garatu daitekeen aurreikusten du". Aldiz, nola egin behar den, "hori eztabaidaren emaitza" izatea nahi dute.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

“Ilusio eta gogo betez gaude”

SORTUK USURBILEN OSATU DUEN HERRI KONTSEILUA AURKEZTUKO DA OSTIRALEAN

Ostiral honetan, 20:00etan hasita, ekitaldia iragarri duzue Aitzaga aurrean. Nolako izango da ekitaldi hori?

Sortu Usurbil. Lau hilabete baino gehiagoko eztabaida prozesuaren emaitza da Sortu. Barne eztabaida horretan Sorturen oinarri idelogikoak eta ildo politikoa eztabaidatu eta adostez gainera, Sortuko barne karguak eta egitura oso aukeratu genituen, eta horren emaitza da herriko kontseilua. Sortu Euskal Herri independente, euskalduna, sozialista eta feminista lortzeko tresna politiko-organizatibo estrategikoa da. Era berean, Zutik Euskal Herria-ren ondorioa da Sortu, eta han finkatutako estrategia bururaino eramateko bokatuzioarekin jaio gara. Ezker abertzale osoarekin egin nahi dugu hori, etxe guztia elkartuz.

Herrian talde berria gara, koadrila eta eremu ezberdineko herritarrak bildu gara, eta ilusio eta gogo betez gaude. Urte asko pasatu ditu ezker abertzaleak bere lan taldeak publikoki aurkeztu ezinda ilegalizazio politikaren ondorioz, eta zentzu horretan apirilaren 19an urrats berri bat emango dugu. Usurbilgo herriari nor garen eta eurekin batera Usurbil garbia, eramangarria, ezkerrekoa, solidarioa, euskalduna, balio feministetan oinarritua eraikitzeke gonbita egingo diegu, ekitaldi labur eta atsegin batean.

Zeintzuk izango dira, epe labur eta erdira, Usurbilgo Sortu sustatu nahi dituen planteamendu nagusiak?

S. U. Egun hauetan izaten ari gara epe labur eta erdira jorratu beharreko lan ildoak finkatzeko batzarrak, eta, nagusiki bi lan ildo jorratuko ditugu; batetik, gatazkaren ondorioei dagozkion gaiak, eta bestetik,



Askatasuna plazan, Sortuko herri kontseilua osatuko duten herritarrak.

SORTU

“Iraultza demokratiko nazional bat egin nahi dugu. Eredu politiko eta soziala erroitik aldatu behar delako”

egoera sozioekonomikoari dagozkionak. Konponbideari dagozkionez, bi zati daude: gatazkaren muina eta gatazkaren ondorioak. Ondorioetan, gure lehentasuna euskal preso politiko eta iheslarien etxeratzea izango da, berriki Iruñean eta Bilbon egin diren Foro Sozialetatik eratorriko diren gatazkaren ondorioei buruzko gomenedioak lantzearekin batera. Gure lan nagusia izan behar da Estatuak estu hartzea jarrera alda dezaten. Gobernuak eta Estatuak ez dute eman inolako pausorik. Hemengo eragile politiko batzuek ere —batez ere EAJz eta PSEz ari gara—, aldatu egin behar dute beren jarra Espainiako Gobernuak estu

hartzeko. Presionatuta sentitzen ez bada, ez du ezer egingo, oso eroso baitago. Instituzioetan lan hori egiten lagunduko dugu guk.

Bestetik, eredu sozioekonomikoa goitik behera aldatu beharra dago. Honek ez du balio, ez du zentzurik eta erabat suntsitzailea da ingurumenarentzat eta pertsonentzat. Tokiko garapena izan behar da etorkizuneko erreminta nagusia. Sorturen borrokagune nagusia eskualdea izango da. Aldez aurretik egindako diagnostikoe-tan oinarritutako dinamikak jarri behar ditugu martxan, eskualde bakoitzean garapen eredu berriak abian jartzeko. Eta horrekin batera Gipuzkoan badugu lan ildo propioa, Zero Zabor ildoak.

Sortu abiatu zenetik hona, harremanik izan al duzue Usurbil mailako gainerako alderdiekin?

S. U. Aralarrekin izan ditugu harremanak, taldeko ardura-

dun berriak aurkezteko bilera izan genuen. EHBildu osatzen dugun bi alderdi gara, eta bistan da, lehentasunezko harreman eta hartu-emanak ditugula Aralarrekin. EHBildu herrian nola indartu eta bere erreferentzialtasuna nola areagotu lantzen ari gara. Beste alderdiekin oraindik ez dugu bilerarik egin, baina asmoa badugu. Dena dela, gure aurkezpen ekitaldian parte hartzeko gonbidapena igorri diegu idatziz.

Eta gainontzeko elkarte eta eragileekin biltzeko asmorik ba al duzue?

S. U. Etxea txukuntzen gabil-tza nolabait esateko, eta oraindik ez dugu astirik izan herriko eragile eta elkarteekin hartu-emanik izateko, baina asmoa badugu. Badugu asmoa herriko talde ezberdinetako ordezkariekin biltzeko, elkar ezagutzeko, Sortu zertarako nahi dugun azaltzeko, eta posible balitz, aurrera begira elkarlanerako dinamikak pizteko oinarriak finkatzeko.

Guk fase politiko berri honi helburu argi bat ezarri diegu: iraultza demokratiko nazional bat egin nahi dugu. Zergatik? Eredu politiko eta soziala erro-tik aldatu behar delako —krisi garai honek oso argi adierazten du zergatik—. Ezin da planteatu iraultza horren abangoardia instituzioetatik. Instituzio hauek demokrazia burgesetik sortu dira, eta kontrakoa egiteko sortu dira. Pentsatzen dugu erabili egin behar ditugula, horiek ere eraldatuz. Argi dago iraultza horren abangoardiak, nonbait egotekotan, kalean egon behar duela. Kalean eta herri mugimenduan. Horregatik nahi dugu herri mugimenduan aliatu estrategiko bat, elkarrengana-ko errespetuz.

“Oraindik ezin dugu askatasun osoz garatu gure militantzia”

Ilegalizazio garaia amaitu dela dirudi. Honek normaltasuna ekarriko du mapa politikora. Baita eguneroko lan dinamikak martxan jartzeko orduan, ezta?

Sortu Usurbil. Amaitzea nahiko genuke, baina ez gaude hain seguru amaitu denik. Espainiako eskuineko sektore zabalean badira batzuk inboluzio birak egin nahi dituztenak, legez kanporatzeen zikloa bukatu nahi ez dutenak. Horren lekuko da astelehen goizean bertan Guardia Zibilak Sortuko kide den Iker Rodriguez bizkaitarra atxilotu izana, Xabier Lopez Peñaren heriotzaren harira egindako hainbat ekimen aitzakia gisa hartuta; edota Sortu legez kanporatzeko mehatxuak. Oso larritzat jotzen dugu hori guztia. Eta ez da bakarrik Sorturen egoera. Nabarmendu nahi genuke euskal gazteriaren egoera. Ernai gazte erakunde berriko kide batzuek jasan behar duten jazarpena, edota berriki Donostiako zortzi gaztek jasandako zigorraren berrespina, Segiko kide izateagatik. Horrek ere adierazten du batzuek ez dutela legez kanporatzeen zikloa bukatu nahi fase politiko berri honetan egon arren.

Duela gutxi, Ernai gazte taldea osatu da Usurbilen. Gazte mugimendu orok bere egitura propioak garatzeko aukera izatea, albiste ona izango da bere horretan, ezta?



Aurreko astean, Donostiako AskeGunean eginiko mobilizazio bat. (Argazkia: Argia).

S. U. Albiste ona da asteburu berean herrian bi aurkezpen izatea: Sorturena eta Ernairena, kimu berriak ernaltzen ari diren seinale, eta egungo egoerarekin deseroso eta egoera aldatu nahi dugunon militanten konprometituak egon bagaude non seinale. Lehen aipatu bezala, egitura propioak izan arren, horrek ez du esan nahi oraindik ere askatasun osoz garatu dezakegunik gure militantzia politikoa, jazarpen polizia egon badagoelako eta kideak atxilotzen jarraitzen dutelako. Hau ez da onartezina, gutxiago egungo fase politikoan, bakea eta normalizazio politikoa eraikitzeke lanean ari garenean, eta gutxieneko baldintza eta askatasun demokratikoen alde jendea mobilizatzea dei egin nahi diegu.

Bi urte beteko ditu laster Bilduren udal gobernuak. Nola baloratzen duzue Mertxe Aizpuruak gidatzen duen talde-

ak egin duen lana?

S. U. Oso positiboki. Garai zailak dira, batez ere krisi ekonomikoak eraginda, diru sarrerak nabarmen gutxitu direlako eta hori oztopo delako nahiko genukeen guztia egiteko. Gerrikoa estutu beste aukerarik ez dago. Murrizketak egin egin dira, baina beti norabide argian, eta marra gorri batzuk pasatu gabe: zerbitzu publikoen kalitatea bermatzea, langileen eskubideak ez kaltetzea, gehien behar dutenak laguntzeko diru laguntzak mantentzea, herriko taldeei diru laguntzak mantenduz krisiak eraginik izan ez dezan herri bizitzan, eta abar. Oreka ez da erraza izaten ari, baina lortzen ari garela esango genuke. Horretaz gainera, hamaika ekimen egin dira: Zero Zabor norabidean urrats berriak egiten ari dira, aurrekontuetan herritarren hitza bilatzeko saioak auzoetan, udal funtzionamendu parte-hartzailea...

“Diagnostiko zehatza osatu nahi dugu”

Langabezia tasa handia da Usurbilen. Ez da erronka samurra izango, lan arloan burutu beharko den jarduna ezta?

Sortu Usurbil. Herritarrena eta gurea. Ildo sozioekonomikoa da gure lehen-tasun nagusia, eta hori bi norabideetan egin nahi dugu: erantzun terminoetan eta eraikuntza terminoetan, eta hori dena eskualdeetatik egin nahi dugu, eskualdea eta herria izango baitira Sorturen jardura politikorako lan eremu nagusi. Ildo hori finkatzeko diagnostiko zehatza osatu nahi dugu, horren baitan borroka eremuak identifikatzeko, langile mugimendu eta eragile sozialekin batera landu nahi duguna, baina, era berean, tokiko garapena sustatzeko elementuak zeintzuk diren identifikatzeko balio behar du. Buruntzaldeko udalak horretan badabilzala jakin badakigu, plan estrategiko baten osaketan, besteak beste, tokiko ekonomia sustertuz, enplegu eta lanpostu berriak sortzeko helburuz.

Besterik gehitu nahi?

S. U. Amaitzeko deialdi eta gonbidapen berezi bat luzatu nahiko genuke lerro hauetatik apirilaren 19ko ekitaldiari begira. Batez ere, gonbidatu nahi ditugu urte luze hauetan herrian ezker abertzaleko egitura ezberdinetan lanean eta militatzen aritu diren herritar guzti horiek eta zinegotzi ohiak, eta maitasun bereziz, herriko preso ohiak eta herriko presoen senideak egotea nahiko genuke, Sortu denon etxea bihurtzeko, eta denok batera, bakoitza bere eremutik, eta indar biziz, preso eta iheslariak etxera ditzagun. Eta, azkenik, lerro hauek baliatu nahi ditugu herriko presoei besarkada bana bidaltzeko, eta batez ere Ramoni, gure animorik maitekoenak. Aupa zuek!

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

LAUKOTE

okindegia
kafeteria

LAUKOTE

Puntapax 16, behe 943 360 980



KALEZAR

INMA BALDA

Festak prestatzen hasiz

Apirilaren erdira iritsi gara eta, azkenik, utzi dugu negua atzean! Gauza txarrak azkar ahaztu behar direla eta erraza egingo zaigu azken egun hauetako eguraldia lagun dugula. Bat-batean, kolpetik eta derrepentean hotzetik berora pasa gara eta horrekin ere ez gara konforme. Zaila gara gero gu kexarik bota gabe mantentzen!

Baina ezin ukatu gure arteko aldartea oso aldatu dela azken bi aste hauetan. Animuak piztu zaizkigu, bizi-poza berrindartu dugu eta kale giroan ere bestelako alaitasuna usaintzen da. Bai, dudarik gabe udaberriz jantzi zaigu natura eta giroa. Arnas berri hartzen hasi gara, beharra zegoen, beharra geneukan. Atzean utzitakoa ahaztu eta datorrenari begira jarri gaitu udaberriak. Etorriko zaiguna, dena, aurrekoa baino hobea, dudarik ez. Eta nahiz eta hasi berria dugun urtaro zoragarri hau, gure auzoan badira gu baino aurrerago pentsatzen hasiak direnak eta Sanjuanak guk uste baino lehenago etorriko direla oharturik, hasi dira auzoko festak prestatzen. Eskerrak zenbait bizilagun erne dabilen. Gazteak eta heldu bileretan dabilta, isil-isilik, lan handia eginenez guztion pozgarri. Horiei esker, aurten ere, izango ditugu festak Kalezarren. Aurrekoen haritik loturik osa dezazuen soka berria aurrea eginez. Bene-benetan mila esker!



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Udaberria

Primaberako liliak hasi dira loratzen. Giro-tenperaturak ere pixkanaka haize beroagoaz laztantzen gaitu eta baztertu ditugu bufanda, txamarra-potolo eta botak urtebetez bada ere, tiradun kamisetei, galtza arinei eta sandalia pareei lekua uzteko.

Eguzkiak bere lehenengo bisita laburrak egin dizkigu jada eta badi-rudi gainera, denboraldi luzexka batez gure artean geratzera ausartu dela oraingo honetan.

Udaberriarekin batera, apur bat atzerago baina elkarri jarraika dator udara; mendi bueltak, hondartzetako bainuak, azalaren kolore belztua eta bidaiak turistikoak besteak beste.

San Juanak, San Pedroak, gureak diren Santixabelak eta gainontze-ko herrietako festak ere ate joka dauzkagu, eta ezin ahantzi herriko gazteentzako udaran antolatzen den Errioxako kanpaldia, abian baita dagoeneko eta bi hilabete eta erdi barru, urteroko legez, Peñaloscintoseko biztanle izango baita usurbildar bat baino gehiago.

Ez da hainbeste geratzen, bihar baita gaur.



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Toribio, Liebanakoa

Apirilaren 16an bere eguna ospatzen da, eta asteburu honetan bertara joateko aukera izan dut. Promesa bat egin nuen Toribio anaiarekin elkarrekin joateko, baina ez zuen aukerarik izan eta orain bera gure artean joan zela lau urte bete direnean, bere oroimenean, beste anaia, koinata eta lehengusu-ahizparekin egin dut bidaiak. Monastegira joan ginenean jakin genuen bost fraide daudela eta denak gipuzkoarrak. Bat Usurbilgo San Esteban bailarako Zabaleko Joxe Miel Pagola Aizpurua, argazkian agertzen gara elkarrekin. Inguru haietan da Potes herria, 1.500 biztanle omen ditu eta herri txiki asko dauzka inguruan. Bizi handia dago asteburuan behintzat, ez dakit hainbeste taberna, jatetxe eta hotel txiki dauzkan beste herririk ba ote dagoen. Ingurumena asko zaintzen dute eta etxe gehienak harria eta egurrez eginak daude. Fuente De eta bere teleferikoan igotzeko aukera izan genuen eta eguraldiak lagundu zuen. Inguru zoragarriak ikusi genituen. Covadonga eta Cangas de Onis ere bisitatu genituen eta dena oso polita. Azkenik esan, niretzat oso hunkigarria izan dela, anaia Toribioren oroimenez egin dudak bidaiak.



SANTUENEA

JON ETXABE

Ero haizia

Euskal Herria beti izan da ezaguna eguraldiaren gorabeherak nabariak direlako, ezin baita jakin zer izango dugun gaurkoan. Baina azken aldikoa ohikoa baino ezohikoagoa da. Alde batetik eguratsaren aldartea da lehen inkognita: zer gertatzen ari da? Auzoaren alde batean euria ari duen bitartean, 50 metrotera izugarrizko eguzkia ari duela, edo ostartetik haize bortitzetara pasatzen garela arratsalde baten buruan. Bestetik tenperaturaren anabasa, egun batean negu sakoneko hotz siberiarra eta hurrengoan tropikoetako bero jasanezina. Guzti honek badu bere ondorioa uste duguna baino gauza gehiagotan. Eguraldia dela eta gure gorputzeko basoak hertsatu eta zabaldu egiten badira, izerdi kopurua izugarri igo eta jaisten bada, oxigeno tasak jauzi handiak baditu, gure organismoak guztia orekatzeko sinetsi ezinezko esfortzua egin behar du, eta oso nekagarria da hori, gaixotasunen aurrean ahulezia handiagoa erakutsiz. Guzti honetatik atera dezakegun gauza on bakarrenetako bat? Igogailuan bizilagunarekin eguraldiaz hitz egiterakoan taxuzko arrazoi bat izango dugula.



Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com



noaua usurbildarren zerbitzura

Noaua-ke Udajolas-erako begiraleen lan-poltsa osatzeko, begiraleak behar ditu, uztailean lan egiteko.

PROFILA:
 2 urteko esperientzia
 Begirale titulua izatea
 EGA edo balioakidea den agiria izatea
 Usurbildarrek lehentasuna izango dute

Interesatuak:
Curriculum-ak apirilaren 26a baino lehen ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Usurbil edo elkarte@noaua.com



noaua



Zubikasi, etengabe prestatzen

Informazio eta aholkularitza gune bat, eskualde mailako Prestakuntza eta Heziketa Bitartekaritza zerbitzua dugu Zubikasi. Zubietako Lanbide Eskolan kokatua dago. Irekia, ibilbide profesionala aldatu, bere zereginetan sakondu edota zaletasun eta interes berrien bila dabilen edozein adinetako herritarrentzat. Entitate, ikastetxe eta eragileekin hartu emanetan den profesional talde batek lanean dihardu egunero. Zubietara gerturatzen denari inguruan duen eskaintza aurkitzen edota jorratu nahi duen ibilbide profesionalerako helburuak finkatzen laguntzen diote. Egun dugun panoraman, pentsaeraz aldatu eta etengabeko prestakuntzak duen garrantziaz jabetu behar garela diote Zubikasiko langileek, NOAUA!ri eskaini dioten elkarrizketa honetan.

Zer zerbitzu eskaintzen duzue?

Ibai Ruiz de Galarreta. Gaurko eta geroko prestakuntza interesen azterketa, pertsona bakoitzak dituen beharrak finkatzen saiatzea. Jendeak izan ditzakeen interes, kezkei erantzuna ematea. Bakoitzaren etengabeko prestakuntza ibilbidearen plana egitea, bakoitzak dituen behar edo interesen arabera. Hau da, adibidez, pertsona horrek dituen beharrak finkatu, denbora baterako ibilbide bat markatu eta tarte horretan, zer ikastaro egin beharko litzuzkeen aholkatu. Eskaintza zabala dago. Ez bakarrik lana bilatzeko ikastaroak. Batek dantza edo antzerkia



Informazio eta aholkularitza gunea da Zubikasi, eta Zubietako Lanbide Eskolan aurkitzen da. Bertako kudeatzaileekin aritu gara solasean.

“Askok pentsatzen du ikasle eta langabetuei zuzendua dagoela soilik, baina ez”, dio Eider de la Cruzek. Edonori dago zuzendua

egin nahi badu, edo sukaldaritza, bere denbora libre betetzeko, eskaera horri ere erantzuten saiatzen gara.

Eider De La Cruz. Eskaintza oso zabala dago. Azkenean bakoitzaren beharren arabera, dagoen eskaintza bilatzen laguntzen dugu. Bilatzea da azkenean, zer behar duen bilatzea. Adi egon beharra dugu. Entitateekin kontaktuan jarri eta bisitatzen ditugu, dituzten beharren berri jasotzeko.

Zerbitzua ez da berria?

I. R. Orientazio zerbitzu hau aspaldidanik eskaintzen zitzaien hemen, Lanbide Heziketa ikastera edota etengabeko prestakuntzako ikastaroak egitera zetozenei. Baina zerbitzua eskolako eskaintzan zentratua zegoen. Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak diru-laguntza deialdia egin zuen. Ideia ona iruditu zitzaigun deialdi honetara aurkeztea, eta azkenean, lehengo zerbitzua, modu

zabalagoan eskualdeko jendeari eskaintzea.

E. C. Zerbitzua gehiago zabaldu da orain. Askotan konturatzen gara, jendeak zer aukera dituen jakin nahi duela, baina ez dakiela nora joan, departamentu desberdinetatik pasatzen joaten dira, hona heldu baino lehen.

Egunerokoan zein da zuen lan egiteko modua?

E. C. Batzuk eskaerak emailaz bidaltzen dituzte. Hau egin dutela, beste hura jakin nahi dutela... Askotan jendeak eskolaren erreferentzia du. Orduan askotan ere eskolara deitzen dute eta idazkaritzakoak hona pasatzen dizkigute deiak. Horren arabera kontaktu bat hasten da. Beste batzuen kasuan, jendea Lanbideetik pasa da. Eta haiek eskolako informazioa eman diote eta era horretara etorri izan dira. Batzuk ahoz aho jakin dutelako, beste batzuk informazioa nonbait ikusi dutelako. Hemengo ikasleek badakite, informatu zaielako. Jendea

bide desberdinetatik dator.

I. R. Jendeari aholkularitza zerbitzua eskaintzeaz gain, atzeko lana dago: web orrialdea eguneratu, formazioa eskaintzen duten eskualdeko entitateekin hitz egin, elkarlana bultzatu...

Nori dago zuzendua zerbitzu hau?

E. C. Edonori. Askok pentsatzen du ikasle, gazte eta langabetuei zuzendua dagoela soilik, baina ez. Baita interes, kuriositate edo lanbidez aldatu nahi duen adin guztietako jendeari ere. Bide profesional berriak jorratu edo orain arteko bide horretan segitu nahi duenari. Zer, non dagoen bilatzen laguntzen dugu.

I. R. Denei. Jendartean zabaldu beharra dugu prestatua egoteak zer garrantzia duen. Ez bakarrik lan mundurako, baita ere, bizitza osoan aktibo egoteko. Horrek motibatuta, eguneratuta segitzen laguntzen baitu. Pertsonaren ongizaterako oso positiboa da prestatuta egotea.

“Oso prestatuak egon behar dugu, lana dagoenerako”

Zuen esperientziatik, zerbitzu hau zertarako da erabilgarria?

Eider De La Cruz. Pentsaera aldatzen duzu azkenean, etengabe prestatzen egon beharko zenukeela jabetzen zara. Proiektu bat dela edo bestea, beti ikasten da zerbaite. Berez ikasketa batzuk ditugu, saiatzeko zara horretan lan egiten. Baina gero edozer gauza pasa daiteke bizitzan eta ez dakizu non bukatuko duzun.

Ibai Ruiz de Galarreta. Zorria dugu, azkenean gure lanagatik gu ere etengabeko prestakuntza batean gaude, nahiz eta hau ikastaro ofizial bat ez izan. Baina egia da, agian jendea ez dagoela kontzientzia-tua, honek ze garrantzia duen. Europatik jada apustu indartsua dator aspalditik, bizitza osoan ikasketako behar horren aldekoa.

Pentsaera aldatu beharra dugu beraz?



Asesoramendu gisa funtzionatzen du Zubikasik.

IBAI RUIZ

“Lehiakortasun handia dago eta enpresen beharrak ere asko aldatzen dira segituan”

I. R. Alemanian mugikortasuna eta lan aldaketa horiek egunerokoak dira. Hemen ere hala dator. Lehiakortasun handia dago eta enpresen beharrak ere asko aldatzen dira

segituan. Geroz eta egonkortasun laburragoa dago.

Eider De La Cruz. Pentsaera aldatzean dago gakoa. Lehen gauza bat ikasten genuen, eta horri loturiko lanean finkatzen zinen. Garai batean kontratu finkoak egiten ziren, orain jada halakorik ez dago. Malgutasun gehiago eskatzen dute, lehiakortasun gehiago, enpresak kanpora doaz... Dena da kate bat. Pixkanaka pentsaera aldatzen joan beharko da. Lanean

gustura egon arren, zerbaite egin eta hobetzeko aukera izanez gero hobe. Eta hala bada, ez da tokiz kanpo geratzen horiei jarraitu eta horri buruz zerbaite gehiago jakin edo ikastea. Gero azkenean, ez baitakigu non bukatuko dugun.

Etengabeko prestakuntzak zer ekarpen egin diezaioke pertsona bati?

E. C. Ekarpina pertsonala da. Norbere bizitzaren arabera oso jende desberdina pasatzen da hemendik. Atzerritarrek ere etortzen dira.

I. R. Bakoitzaren bidea oso desberdina da, bakoitzarekin oso desberdin lan egiten dugu. Batzuei hasi behar zara motibatzen eta azaltzen, etengabeko prestakuntzaren behar hori adierazten eta transmititzen saiatzeko. Eta beste batzuek bakarrik ikastaro zehatz bat egin nahi dute, badakitelako bere aurreko ikasketekin erlazioa duela.

“Langabezia zaudenean, ikasketak egitea ezinbestekoa da”

“Zertarako ikasi, lanik ez bada-go” entzun ohi da. Zer diozue esaldi honen aurrean?

Ibai Ruiz de Galarreta. Espiritu etsikorra iruditzen zait, zure buruari harriak botatzea da. Ez dugu beste aukerarik. Orain lanik ez dagoen arren, oso prestatuak egon behar dugu lana dagoenerako eta lana

dagoenean, enpresa horiek euren beharrak bete ahal ditzaten. Adi egon behar dugu jakiten zer behar duten enpresok, norantz doazen enpresak, zer beharko duten... Gainera, lanik gabe dagoenaren kasuan, denbora dago ikasketako. Langabezia zaudenean ikasketak egitea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

Zuengana jo aurretik komenigarria da zerbaite prestatzea, kurrikuluma adibidez?

Eider De La Cruz. Nahi duten moduan. Kurrikulumarekin badatoz, errazagoa da beti ere ibilbide bat finkatzea. Baina bestela ere etor daitezke besterik gabe. Etorri, hitz egin, elkarrizketa egin eta finkatu zer nahi

den. Web orrialdea ere informatzeko dago. Hortik ere ikus dezake zer ikastaro dauden...

INFORMAZIO GEHIAGORAKO...

Etarte bidea, 9 Zubieta (Lanbide Eskola). Telefonoa: 943 562 061.

E-posta: info@zubigune.com

Web orrialdea: zubikasi.org

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

USURBIL AUTOAK

·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTKEEN SALMENTA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Astebete barru, denok dantzara!

Urtean zehar herrian ospatu ohi diren hitzorduen zerrendara ekimen berri bat batuko da aurtengoan. Astebete barru, apirilaren 27an ospatuko den Usurbilgo I. Dantzaren Eguna. Herrian dantzaren inguruan jarduten duten taldeak bilduko ditu, hilabete honetako azken larunbatean ospatuko den egun osoko jaialdiak. Egungo dantzariak, atzokoak, zaletuak, herritarrak... Antolatzaileek parte hartzera animatu nahi dute jendea. Goizetik hasita gauera arte, giro polita sortuko delakoan daude.

Egitarauari dagokionez, Kaxko inguruan barrena burutuko den kalejira batekin hasi nahi dute eguna. Dantza Taldea omenduko duen ekitaldi batekin emango zaio jarraipena. Arratsaldean, herriko dantza talde desberdinen emanaldiak ikusteko aukera izango da. Eta gauean, "Sorginetxe" izeneko ikuskizun berria estreinatuko dute frontoian. Bertan, besteak beste, 18 urtetik gorako herritarrekin aurten osatu den dantza talde berriak parte hartuko du, edota baita Zumarte Abesbatzak ere. Ikustekoa izango da.

Egun berean inauguratuko dute bestalde, Usurbilgo Dantza Taldearen erakusketa. Bertan, bilgune honi loturiko material desberdina ikusteko aukera egongo da, apirilaren 27tik maiatzaren 5era, 17:30-20:00 artean Sutegiko aretoan.



Egun osoko egitaraua prestatu dute datorren asteko larunbaterako.

EGUNA BIRIBILTZEKO

"Sorginetxe" ikuskizun berriaren estreinaldia egingo da frontoian

Erakusketa horretarako materiala biltzen ari dira antolatzaileak. Edonork, argazki, bideo, dokumentazio, arropa edo bestelako materialik izan eta utzi nahiko balu, jar dadila harremanetan taldearekin dantzataldea@usurbil.com helbidera email bat bidalita edo 650 422 601 telefono zenbakira deituta. Dantza Taldekoek bildutako materiala gainera, datorren urtean argitaratu asmo duten libururako ere baliatu nahi dute. Talde honen historia jasoko dute bertan.

GIMNASIA TOPAKETAK

Dantzaren Egunean egokitu da bestalde, Kantu-jiraren hitzordua. Oraingoan, aipatu jaialdiko egitarauaren baitan integratu dute. Kantuaz gain, dantzan egiteko aukera ere

izango dela iragarri dute. Horrez gain, Tximeleta soinketa erritmikoko taldeen urteroko topaketak ere apirilaren 27an ospatuko dira. Egun osoz, Oiardo Kiroldegian.

Apirilaren 27an

- **Egunean zehar**, Tximeleta soinketa erritmikoko taldeen topaketa Oiardo Kiroldegian:
- **10:00-11:30** Benjaminen topaketa.
- **12:00-13:30** Alebin eta infantilen lehiaketa.
- **13:30** Sari banaketa.
- **16:30-18:00** Benjaminen topaketa.
- **11:30** Kalejira trikitilariekin udaletxetik abiatuta.
- **12:30** Usurbilgo dantza ondarearen transmisio ekitaldia frontoian. Ondoren, euskal dantzetako arropen erakusketaren irekiera Sutegin.
- **17:30** Dantza Talde ezberdinen erakustaldia frontoian.
- **19:00** Kantu jira, frontoitik.
- **22:00** "Sorginetxe" ikuskizuna frontoian.

Emakumeen ahalduzte ikastaroak

Ikastaro hauetako bi martxan dira jada, hirugarrena astelehenean, apirilaren 22an abiatuko da. Hala ere, antolatzaileek ohartarazi dutenez, hiruretan izen emateko epeak zabalik jarraituko du, hilaren 29ra arte. Apuntatzeko, deitu 943 377 110 telefono zenbakira edota parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzi (izen ematea doan).

ZER DA BIODANTZA

Norberaren konfidantza, segurtasuna, autoestimua, komunikazioa eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko teknikak jorratuko dira.

- Astelehenean, 17:00-19:00 Santueneko Lokalean (euskaraz).
- Irakaslea: Ainhoa Iturbe.
- Hasiera data: apirilak 22.

GURE ARBASOAK: EMAKUMEEN LEINUAK

Ikastaro honen helburua emakumeen arteko laguntza-harremanak sustatzea da. Transmittitu dizkiguten alderdi positiboak berriro hartzea.

- Ostegunetan, 14:30-16:30 artean, yoga lokalean (gaztelerez).
- Irakaslea: Pepa Bojo psikologoa.
- Hasiera data: apirilak 8.

KRISIAK ETA DOLUAK

Ikastaro honetan dolu prozesuak ulertzeko eta emozioak kudeatzeko baliaabideak jorratuko dira.

- Ostegunetan, 17:00-19:00 artean, yoga lokalean (gaztelerez).
- Irakaslea: Pepa Bojo.
- Hasiera data: apirilak 8.

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

ALDAMU

KONPONKETAK
KALE Nagusia 10- atzekoaldea
943 372 795

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Ibilbide orri bat irudikatu nahian

Independentziaren ibilbide orria hitzaldi zikloa antolatu du Nafartarrak taldeak, apirilaren 24tik 26ra. Saioak 19:00etatik aurrera burutuko dira Sutegin. Sarrera doakoa izango da. Solasaldietako izenburuak honako hauek dira: "Catalunya", "Nafarroarik gabe independentzia?", eta "Iparraldeko ELB sindikatuak 30 urte: aurkezpena". Zikloa, Usurbilgo Gaztetxean Iparraldekoekin burutuko den afari batekin eta Odolaren Mintzoa taldekoen kontzertuarekin amaituko da. Afaritarako txartelak 15 eurotan egongo dira salgai.

APIRILAK 24, ASTEAZKENA

19:00 Hitzaldia Sutegin: "Catalunya". Hizlaria: Mario Zubiaga.

Edukia: "estatu propioa lortzeko helburua duten bi prozesu nazionalen - euskalduna eta katalana - arteko simetria eta asimetriak, espainiar Estatua krisi sakon batean murgildua dagoen honetan".

APIRILAK 25, OSTEGUNA

19:00 Hitzaldia Sutegin: "Nafarroarik gabe independentzia?". Hizlariak: Angel Rekalde, Pako Aristi, Koldo Martinez Garate.

Edukia: "Hegoaldeko euskal "probintzien" abiadura sozial ezberdinen ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoak independentzia lortzeko erraztasun edo aukera gehiago ditue-



Mario Zubiaga unibertsitateko irakaslea da. Apirilaren 24an asteazkena, Kataluniaz hitz egingo du Sutegin, 19:00etatik aurrera.

AFARIA GAZTETXEAN

Apirilaren 26an, afari batekin amaituko dira independentziari buruzko jardunaldiak

naren ustea zabaldu da zenbait jenderen artean. Baina, posible da euskal independentziaren bidean aurrera egitea Nafarroa Garaia atzean gertatzen bada? Edo ikuspegi sakon edo estrategikorik gabeko irudipena al da, Espainiak gure indarrak banatzeko sortua? Zer da Nafarroa, traba deseroso bat, ala Estatu arazoa?"

APIRILAK 26, OSTIRALA

19:00 Iparraldeko ELB sindikatuak 30 urte: aurkezpena Sutegin. Hizlariak: Panpi Sainte Marie eta Dominik Agergarai (ELB).

Edukia: Euskal Herriko Laborrarien Batasuna (ELB) sindika-

tua da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biziberritzeko ahaleginean sortu diren taldeetan inportanteenetakoa. 30 urte bete berriak ditu. ELBko baserritar militanteek bultzatu dituzte ikastola asko, eskola publikoetan euskara sartzeari, enpresa berri askoren sorrerari, ekonomia mailako sare alternatiboak, berotze dute kultur mugimendua... Panpi Sainte Mariek txerriak hazten ditu Landibarren, Nafarroa Beherean, eta ELBko idazkari nagusia da. Dominik Agerrek ardiak dauzka Urdiñarben eta Azkoria kooperatiba sustatzen du.

21:30 Usurbilgo Gaztetxean: afaria Iparraldekoekin, kantu saioa eta Odolaren Mintzoa taldekoen kontzertua. Sarrerak: 15 euro. Afariaren menua Usurbilgo produktuekin egingo da: atuna arraultzarekin, entsalada, gixatua, flana eta kafea eta kopa.

Antolatzailea: Nafartarrak.

Elkarretaratzea, astebete barru

Euskal preso eta iheslari politiko-en eskubideen aldeko Herrira Eguna ospatu zen joan den larunbatean. Besteak beste, mobilizazioa, bertso saioa edota harpidetza afaria burutu ziren apirilaren 13an. Presoen eskubideen aldeko hurrengo hitzordua, apirilaren 26an, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Larunbat honetan, Usurbilgo Ernairen aurkezpena

Larunbat honetan, apirilaren 20an aurkeztuko dute Usurbilgo Ernai, Ezker Abertzaleko gazte erakunde berria. 19:00etarako trikipoteoa antolatu dute, Aitzagatik abiatuta. 20:00etan ekitaldia burutuko dute frontoian.

Atxegaldeko jaiak prestatzeko bilera deitu dute

2013ko jaietarako prestateta lanak abiatu dituzte jada. Horren harira, Atxegaldeko Jai Batzordeak bilera antolatu du larunbat honetarako, apirilaren 20rako, 12:00etan Potxoenean. Hitzordu honen bidez, "Atxegaldeko auzotarrak gurekin festak prestatzera gonbidatu nahi ditugu. Animatu daitezela festak antolatze-ra!"

CAF-Elhuyar Sarien ekitaldia, frontoian

Usurbilgo frontoian banatuko dira aurtien CAF-Elhuyar Sariak, apirilaren 25ean 18:00etan.



Kima

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia


·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

"Merkatu txikia", sarean

Etxebizitza bat saldu edo garajeren bat alokatu nahi duzula? Lan bila zabilta? Zurea zen objekturen bat galdu eta NOAUA!n iragarri nahi duzu? Orain arte, egoitzara ekarritako oharrak edota email bidez jasotzen genituenak aldizkarian argitaratzen genituen. Aurrerantzean ordea, aldizkari-ko iragarkiak noaua.com atarian ere argitaratuko ditugu, "Merkatu txikia" tarte berrian. Bertan gainera, iragarki berriak sortu ditzakezue.

"Berria sortu" botoian klikatu eta dauden hutsuneak bete baino ez dira egin behar, nahi duzuen ohar hori argitaratzeko. Web orrialdean ikusiko dira iragarkiok, baita astero, NOAUA! aldizkarian ere. Iragarki berriak sortzeaz gain, lehendik argitaratuak zeuden azken oharrak ere ikusteko aukera dago. Zintzilikatuta dauden iragarki guztiak, atal-ka ere kontsulta daitezke. Web orrialde honetan iragarkia jar-



www.noaua.com orrian aurkituko duzue, albisteen amaieran.

"MERKATU TXIKIA"

"Ohar berriak sortzeaz gain, lehendik argitaratuak zeudenak ikusteko aukera dago"

tzen duzuenok, noaua.com atarian bakarrik ez, aldizkarian ere argitara emango dira. Batean zein bestean plazara-tutako oharrak doakoak dira. Paperean edo sarean, oharra egokia ez dela erabakiko baltiz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2012KO NOAUA!-K KOADERNATZEKO AUKERA DAGO ORAINDIK

Tapa eta aurkibideak eskuragarri dituzue NOAUA!ko egoitzan. Bazkide zaretenok doan jaso ditzakezue. Bazkide ez direnek, 3 euro ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik eta beste 1,20 euro, aurkibidearengatik. Koadernatzea Lizardi edo Laurok liburu dendatan egin daiteke. Koadernatzea berdin ordaindu behar dute bazkide direnek eta ez direnek.

Odolaren Mintzoa, Gaztearen Maketa Lehiaketan

Iaz Hotzikara izan zen, eta aurten, Odolaren Mintzoa herriko musika taldea sailkatu da Gaztea irrati kateak antolatu duen Maketa Lehiaketan. 300 lan aurkeztu dituzte txapelketa eta horietatik hogeitabi baino ez dira sailkatu bozketa faserako, tartean usurbildarren "Gaua" izeneko kanta. Apirilaren 22ra arte, abesti honen aldeko botoa eman daiteke helbide honetan: www.eitb.com/eu/gaztea/maketa-lehiaketa/

Bertan, "Gaua" abestian klikatu, datu pertsonalen formulario txiki bat bete eta kito. Datorren astelehenean, Gazte-ako "B Aldea" saioan, Entzu-



Astelehenera arte dago bozkatzeko epea.

leen Saria norentzat izan den iragarriko dute, baita bigarren talde bozkatuena nor izan den ere. Gainera, epaimahaiak aukeratuak hiru finalisten izenak jakinaraziko dituzte. Hiru taldeok, apirilaren 26an Bilbo-rock aretoan eskainiko duten zuzeneko emanaldian lehiatuko dira. Bertan erabakiko da Gaztearen Maketa Lehiaketaren irabazlea.

MunduMOB ekimenaren aurkezpena

"Herritar guztiak gonbidatuak zaudete aurkezpen ekitaldira", hitz hauekin datorren astelehenean, apirilaren 22an 19:30etan Potxoenean burutuko den hitzordura gerturatzeraz deitzen dituzte herritarrak, Usurbil Zero Zabor taldetik. Bertan, MunduMOB, "Gipuzkoako herriak zeharkatuko dituen ekimena" aurkeztuko dute. Maiatzaren 4an Orendainen hasi eta ekainaren 8an Donostian amaituko da. Tartean, Gipuzkoako hainbat txoko zeharkatuko ditu. Usurbilen ere burutuko da. Girotzen joateko, sartu youtuben, eta ikusi MunduMOB ekimenaren aurrerapen bideoa.

Buruhandi tailerra

Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak antolatuta, apirilaren 27an eta maiatzaren 4an, 9:30-13:30 artean Usurbilgo Gaztetxean. Pablo Feok bideratuko ditu, familiei zuzenduak egongo diren saioak. Asteazkenean ixtekoa zen izena emateko epea hitzaho@udarregi.com helbidean. Parte hartzaileen izen abizenak adierazi eta 10 euro ordaindu behar ziren. Partaide kopurua mugatua izango da.

Haur Eskolan matrikulatzeko epea ireki dute

Izen emateko deialdia, 2011, 2012 eta 2013 urteetan jaiotako haurrei zuzendua dago. Izen emateko aukera egongo da apirilaren 26ra arte. Haur Eskolako ordutegia honakoa da: 7:30-17:00. Hitzordua eskatzeko 943 37 40 61 telefonora deitu behar da, goizez: 9:00-11:00.

Ate irekien eguna, 24an

Matrikulazio epe honen baitan, Ate Irekien Eguna antolatu dute. Apirilaren 24an, 17:00etan euskaraz, eta 18:30etatik aurrera, gaztelaniaz. Haur Eskolak, besteak beste, zerbitzuok eskaintzen ditu: osasun heziketa, elikadura ekologikoa, jantokia, zerbitzu pedagogikoa...

Patinatze ikastaroa

Maiatzaren zehar burutuko da Enean Guraso Eskolak antolaturiko ikastaroa; hilaren 4, 11, 18 eta 24an, 16:00etatik aurrera, Udarregi Ikastola aurreko patio borobilean. Izen emateko aukera egongo da maiatzaren 1, 2 eta 3an, 10:00-11:00 artean, 609 41 38 83 telefono zenbakian. Prezioa, 5 euro. Ordaindutako kopuru honekin, ikastaro amaieran askari bat egin nahi da. Ikastaroan parte hartzeko kaskoa eta babestekoak beharrezkoak dira. Antolatzailerak ez dira gerta daitezkeen istripuen kargu egingo. Ikastaroaren ostean, aukera egongo baltiz, hitzorduetan jarri eta patinetan ibiltzeko taldea osatzea litzateke asmoa.

Andatzakoak, Sarako parajeetan



34 lagun elkartu ziren aurreko igandean Andatzaren mendi irteeran. Sara-Larrun-Zizatea ibilbidean, haizea eta beroa izan ziren nagusi. "Helburua Zugarramurdira iristea zen, baina batzuen arazo fisikoak zirela medio, ibilbidea Zizaetan amaitzea erabaki genuen", adierazi digute Andatzako kideek.

Lagun talde polita, kirol txokoetan



Ederki ibili ziren Usurbil FTren Aste Santuko txokoetan izena eman zuten gaztetxoak.

Euritan esnatu zitzaugun apirilaren 6an, Askatasuna plazako aterpean ateratako irudia duzue goian. Bertan ageri direnak berri, Usurbil FT-k iragan oporraldian antolatutako kirol txokoetan parte hartu duten haur eta begiraleak. Primeran pasa dute. Baita Antxomolantxa Elkartek Aginagan antolatutako txo-

koetan ere. Edota Gaztelekukoek asteotarako bideratu dituzten ekintzetako parte hartzaileek. Zarautzen eta Olaberriako Karting-ean izan dira.

Futbol txapelketa ere antolatu dute, eta martxoaren 23an Korrikan ere irteteko hitzordua jarria zuten.

Usurbil KE taldeko jubenilak, Federazio Txapelketako irabazle

Usurbil Kirol Elkarteko jubenil mutilen taldea, Gipuzkoako Federazio Txapelketako garaile dugu, joan den larunbatean etxean, Oiardo Kiroldegian, Egiaren aurka jokaturako neurketa irabazi ostean. "36-33 irabazi zioten Egiari eta beste titulu bat lortu zuten, Gipuzkoako Liga irabazi ondoren. Egia aipatutako 2 goleko mugatik ez pasatzea lortu zen momentuoro. Dena alde izanik, ezin galdu! Eta gertatu behar zena gertatu zen, eta Kopa etxean geratu zen", berri eman dute pozik, Usurbil Kirol Elkartekoek.

Barakaldok irabazi arren, harro egoteko moduko denboraldia egin dute

Kadete nesken mailako lau talde onenen arteko txapelketa ospatu zen asteburuan, Barakaldoko Lasesarre Kiroldegian. Etxekoek irabazi zuten azkenean, Euskadiko Amaiera Sektorea, Barakaldoko Zuazo taldekoek. Usurbil Kirol Elkartea lau finalisten artean zen. Ez dute garaipena eskuratu ordea, baina nabarmentzekoa da zalantzarik gabe, honaino egin duten ibilbidea. Txapelketako zenbait irudi, eskubaloit taldeen bilguneak Twitterren ireki duen helbide honetan aurki daitezke: @UsurbilEskubalo

Gurpildun aulkiko pala txapelketako finalak

Gipuzkoako Txapelketa finalak jokatu dira larunbat honetan, goizeko 11:00etatik aurrera frontoian. Partaideen artean, bi herritar izango dira. Beñat Lizaso eta Andoni Aizpeolea.

Usurbilgo XXXXI. Pilota Txapelketa

Apirilak 20 larunbata

10:30 Usurbilen, Nagusiak
Goikoetxea-Mendia (Beasain)
Hernandez-Ugalde (Oiartzun)

Garcia-San Sebastian (Hernani)
Zendoia-Gesalaga (Usurbil)

Ezkurdia-Bergara (Irurtzun)
Sarasti-Zanguitu (Errenteria)

Apirilak 21 igandea

10:30 Usurbilen, Nagusiak

Urmeneta-Elola (Añorga, Lasarte)
Asteasuinzarra- Berroeta (Maestu)

Maia-Andueza (Goizueta)
Katalina-Lizeaga (Usurbil, Hernani)

Jaunarena-Mindegia (Doneztebe)
Mendizabal-Labaka (Usurbil, Bidegoien)

Futbol partidak Haranen

Apirilak 20, larunbata

11:00 Alebin Mutilak Futbol 8 Udarregi 6A.
11:00 Infantil neskak F-8.
15:30 Neskak.
17:30 Jubenilak.

Apirilak 21, igandea

11:00 Alebin Federatua.
16:00 Kadete F-11.

Eskubaloit partidak

Apirilak 19, ostirala

19:45 Senior mutilak, 2. Nazionala:
Atez Ate Usurbil-Trapagaran

Apirilak 20, larunbata

11:00 Infantil neskak:
Udarregi C Usurbil-Leizaran A

12:00 Alebin mutilak:
Udarregi 5A-La Salle Berrozpe 5B

13:00 Infantil neskak:
Udarregi A Usurbil-Udarregi B Usurbil

17:30 Kadete mutilak:
Usurbil K.E.-C.D. Egia Balonmano

19:00 Jubenil mutilak:
Usurbil K.E.-Ordizia Eskubaloia

Apirilak 21, igandea

11:30 Senior mutilak, 2. territoriala:
Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

Tokia: Oiardo Kiroldegia.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbarra handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Etxe bat alokairuan Atxegalden. Tel. 659 921 235.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro

gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeta egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,
garajeak**

30 metroko lokal bat alokatzen da Lasarten, Zumaburrun. Egokia edo zer gauza jartzeko. 130 euro hila-betean. Kontratua luzea egitea posible izango da. 687 348 223.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km,

gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiarrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kobxea eta motoasartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakas-kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizein arratsaldean. Irakas-kuntza diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adinoko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketarako. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria pres-tatu... Garbiketa lanetarako oro

har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalaneko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldean, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-



Zorionak Jon! Happy Birthday!! Apirilaren 21ean 8 urte, nola ari zaren handitzen! Ondo ondo pasa eta muxu handi bat familiko guztien partez.



Zorionak Helene! Martxoaren bukaeran, 8 urte bete zenituen. Oporretan egon gara eta berandu xamar bada ere, zorionak familia guztiaren partez.



Zorionak hirukote! Egun ona pasa genuen. Segi horrela, txokolatzeko muxuak etxeko partez.



Zorionak Mare! Apirilaren 18an lehen urtea egingo duzu zorionak! Gure bizitzako argia zara.



Zorionak Uxue! Gure neska koxkorak apirilaren 15ean 6 urte beteko ditu. Oso ondo pasa eta muxu asko Amets eta aita-amatxoaren partez.



Zorionak Eneko! Apirilaren 19an urte bete egingo duzu. Muxu handi bat familiako partez.

kaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat emake edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adinako pertsonak zaintzeko, etxeko

lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko, klase partikularrak emateko. Atzerriko Hizkuntza-

ko Majisteritzan eta Haur Hezuntzan diplomatua. Esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Zubietan, emakumea behar dut etxeko lanak egiteko. Lanaldia erdia edo herena. Tel. 695 783 202.

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

BESTELAKOAK

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "txes-

lorarekin". 400 euro (negoziagariari). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, libururak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene-tostialera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia ..	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak apirilak 18-apirilak 28

Osteguna 18	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 19	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 20	GIL	Kale Nagusia 24 behea Lasarte
Igandea 21	GIL	Kale Nagusia 24 behea Lasarte
Astelehena 22	GIL	Kale Nagusia 24 behea Lasarte
Astearte 23	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6 Lasarte
Asteazkena 24	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte

Osteguna 25	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Ostirala 26	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Larunbata 27	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6 Lasarte
Igandea 28	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)



ARTZABAL
Baserría - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 93 39

**EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK**



JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Agenda apirila

19 ostirala

■ **Sorturen herri kontseiluaren aurkezpena** eta lan ildo nagusien azalpena. 20:00etan Aitzaga aurrean. Ondoren herri afaria Aitzagan. Txartelak 18 eurotan salgai Aitzagan eta Txiribogan (langabetuek eta gazteek, 12 euro).

20 larunbata

■ **Salbatore elizako Organoari bisita.** 12:00etan, Usurbilgo Gaztetxearen ekimenez.
 ■ **Sagardo dastaketa gidatua, Saizarren.** 11:00etan, Saizar sagardotegian. 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

21 igandea

■ **Ion Markelen "Kalekumeak" erakusketa ikusteko azken eguna.** Ostiralera bitarte: 18:00-20:00. Larunbatean: 11:30-13:30 / 18:00-20:00. Igandean: 11:30-13:30.

Udarregi Ikastolako ohiko batzar nagusia, apirilaren 25ean osteguna

Martxoaren 13ko Artezkaritza Kontseiluak, Udarregi Ikastolako urteroko ohiko batzar orokorra deitzea erabaki zuen apirilaren 25erako. Datorren ostegunerako, bi deialdi egin ditu. Lehena, arratsaldeko 18:00etarako eta hala badagokio, bigarrena 18:30erako, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.



Apirilaren 19an itxiko da ingeles udalekuetan izena emateko epea.

INGELES UDALEKUAK

Ostiral honetan, apirilaren 19an itxiko dute, Udarregi Ikastolak antolatatu dituen ingeles udalekuetan izen emateko epea. Apuntatzeko ikastolako idazkaritzara gerturatu behar da. Udalekuok ekainaren 26tik uztailaren 23ra luzatuko dira, goizez eta lau orduz, 9:00-13:00 artean. 5-11 urte arteko haurrei zuzenduak daude. Irakas-

le "natiboekin" eta talde txikitik, jokoak, eskulanak, antzerkiak... denetarikoko ekintzak egingo dituzte. Udalekuen prezioa, 300 euro. Doan, hezitzaileak etxean hartzen dituzten ikasleentzat. Udalekuak burutu ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da.

Kontzertua Meza Nagusian

Igande eguerdi honetako meza nagusia ezohikoa izango da, kontzertua antolatatu dute eta, Organoaren Lagunak taldekoek eta Zumarte Musika Eskolak. Tronpeta naturala eta organo emanaldiaz gozatzeko aukera izango da Salbatore Parrokiari, 11:45etatik aurrera. Meza aurretik, ekitaldian zehar eta amaieran Basilio Gomarín (espainiar tronpeta jotzailea) eta Handel Cedlio (organo jole brasildarra) arituko dira Elizan.

Etxeko merienden lanketa

Hitz Ahok eta Haur Eskolako Guraso Taldeak antolatatu dute tailerra. Apirilaren 23an burutuko da, 18:00-20:00 artean Haur Eskolan. Amaia Ullatek eskainiko du ikastaroa. Izen emateko, idatzi uhegurasoak@gmail.com helbidera. Gehienez 12 lagunentzako lekua egongo da. Apuntatzeko hurrenkeraren arabera osatuko da taldea. Bereziki, 0-3 urte arteko haurren gurasoei dago zuzendua, baina edozein gurasok parte har dezake.

Datozenak

"Bi arreba" ikuskizuna Sutegin

Udalaren kultur agendan antzerki gisa dator iragarria. Bertso baterako emango al dio deskuido honek Andoni Egañari. Bertsoak eta piano doinuak bat egiten dute saio honetan. Andoni Egaña bertsolariak Xabier Lizaso pianojolea du bidaide. Apirilaren 28an Sutegin arituko dira, 19:00etatik aurrera. Nondik dator baina, ikuskizunaren izenburua? Frederick Chopin piano jotzailea eta Xenpelar bertsolaria garaikideak izan ziren. Beste zenbait kontutan ere bazuten elkarren antza. Biak bizi izan ziren garai politiko gatazkatsuan, eta hil ere, gazte eta gaixo: Chopin 39 urterekin, eta Xenpelar 34rekin. Hilurren, arreba izan zuten ondoan biek. Hortik Egaña eta Lizasok ondu duten ikuskizunaren izenburua: "Bi arreba".

Sarrerak Txiribogan eta NOAUA!n jarriko dira salgai 10 eurotan (NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina alde zuzen erositako NOAUA!n).



Apirilaren 28an igandea, 19:00etan Sutegin.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L

teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

OSASUN GIDA 2013



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igenlekuko tapoiak neurritan eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

50€-ko
BALEA

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - beheka, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

Öinutsik

podologia zentroa

Puntapax 6B, beheka ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiroprodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatikokoak

Maisu formulak

Barda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Gida honetan azaltzeko: 943 36 03 21 publizitatea@noaua.com

Apirilean



HURBILAGO TXARTELAREKIN 10 ETA 20€KO EROSKETA SARIAK ZOKKETATUKO DIRA



**Erosketa saria Hurbilagoko
dendetan erosteko erabili
ahal izango da,
2013ko maiatzaren 31era arte.**

